



2023/2024 denboraldia

13. ZIRKULARRA

GIZONEZKO KADETEEN OHOREZKO MAILAKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Ohorezko Kadeteen liga txapelketa honela antolatu du:

1.KLUB PARTAIDEAK

GRUPO 1 MULTZOA

- 1 HERNANI C.D.
- 2 BETI ONA C.D.
- 3 OSTADAR S.K.T.
- 4 OIARTZUN K.E.
- 5 HONDARRIBIA F.E
- 6 REAL UNION CLUB SAD
- 7 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE
- 8 EUSKALDUNA S.D.
- 9 LENGOKOAK K.E.
- 10 ORIOKO F.T.
- 11 ANTIGUOKO K.E. "B"
- 12 VASCONIA C.D. "B"
- 13 KOSTKAS KE "B"
- 14 REAL SOCIEDAD S.A.D. "B"
- 15 MARTUTENE K.E.
- 16 TOURING KE
- 17 AÑORGA K.K.E

GRUPO 2 MULTZOA

- 1 ORDIZIA K.E.
- 2 ANAITASUNA C.D.
- 3 AIZKORRI GOIERRI F.T.
- 4 LAGUN ONAK C.D.
- 5 INTXURRE K.K.E.
- 6 DANENA K.E.
- 7 ILINTXA S.D.
- 8 ELGOIBAR C.D.
- 9 ZUMAIAKO F.T.
- 10 BEASAIN S.D.
- 11 EIBAR S.A.D. "B"
- 12 MONDRAGON C.F.
- 13 BILLABONA K.E.
- 14 BERGARA K.E.
- 15 TOLOSA C.F.
- 16 ZARAUTZ K.E.



2. LEHIAKETA SISTEMA

Ohorezko Kadeteen liga txapelketa **33 taldek** osatzen dute 17 taldeko multzo bat eta 16 taldeko multzo batean banatuta. Fase bakar batean jokatuko da: puntuen bidez eta bi itzulietara (34 jardunaldi eta 30 jardunaldi hurrenez hurren), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

Kadeteen Euskal Ligara igoko da goragoko mailako beste batekin mendekotasun- edo filialtasun-harremanik ez duen kirol-eskubiderik onenak dituen taldea, eta dagokion zirkularrean jasoko da horren zehaztapena.

Hurrengoak, igoyerako play off bat jokatuko du Araba eta Bizkaiko sailkatuaren aurka, hiruko sistemaren bidez, eta irabazlea igoko da.

Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek finala jokatuko dute zelai neutralean, mailako txapelduna izendatzeko.

Kadeteen Gorengo Mailara 6 talde jaitsiko dira, multzo bakoitzeko azken 3 sailkatuak. Arrazoiak arrazoi, jaitsiera gehiago izanez gero, hurrengoak 17 taldeko multzoari egokituko zaio, eta jaitsiera gehiago izanez gero, sailkapen postu berean dauden taldeen arteko jaitsierako play off batekin konponduko dira, erregelamendu bidez zehaztuko diren modu eta baldintzetan.

Kategoria galduko dute, era berean, Federazio honetako taldeen kasuan gertatzen diren goragoko mailako jaitsieren ondorioz behar direnek, baldin eta horrek aipatutako kategorian klub gehiegi egotea badakar, kontuan hartuta 2024/25 denboraldirako Ohorezko Kadeteen Mailan 32 talde izan beharko direla.

3. IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 80 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.



4. JOKALARI INFANTILEN PARTE HARTZEA KADETE MAILAN

"Bigarren urteko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.
- Foru Erakundearen baimena, eskolarteko infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten. 6. Zirkularrean ikus daitekeen bezala, ondorengo onartzen da:

Infantil Handi eta Emakumezkoen Infantil F-11 mailako lehiaketetan jokatzeko duten jokalariai Ohorezko Kadete Mailan jokatzeko baimenduko da soilik udalerriko klub bakarria bada eta klubak Lehenengo Kadete mailako talderik ez badu.

Gehienez, infantil mailako 4 jokalarik baimentzen dira edo 18 jokalariko gutxienezko osatu artekoak eta haurrak lehiaketa honi dagozkion irizpide teknikoak baldin baditu (kirol-ezaugarriak).

Helburua Infantil mailako lehiaketari lehentasuna ematea da eta jokalarik faltan izanez gero kadeteetan jokalariren bat izateko aukera izatea.

- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea.

5. PARTE HARTZE BIKOITZAREN ARAUZKO ONDORIOAK

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina infantilen taldean lerrotatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan egin.

6. DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

7. XEDAPEN OROKORRA

Bere garaian Gipuzkoako Futbol Federazioaren Batzar Orokorrean honako gai hauei buruz ezarritako akordioari eusten zaio:



- 1) Ohorezko Kadete Mailan "koltxoi" kategoriari eustea.
- 2) Ohorezko Kadete Mailan sortzen diren plaza hutsak txandaka betetzea, hurrenkera honetan:
 - a) Kadeteen Gorengo Mailatik igotzeko eskubidea lehenetsiz. Eskubide horri uko eginez gero, b) puntuarekin jarraituko da.
 - b) Kadeteen Ohorezko Mailatik jaitziko ondoen sailkatu den taldea ez jaitea. Eskubide horri uko eginez gero, hurrengo puntuarekin jarraituko da.
 - c) Eta horrela, hurrenez hurren.

Bi multzotan edo gehiagotan osatzen diren kategorietan, mailaz igotzeko edo mailari eusteko eskubideak **sailkapen postu bera** bete duten taldeen artean jokatu dira. Hau da, **lehenengoak, bigarrenak, hirugarrenak** eta horrela, hurrenez hurren, **beste multzoko sailkapen postu bera** betetzen duten taldeekin jokatu lituzke partidak.


8. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalatu, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzeko, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2023ko iraila 6a

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Inigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General